

Ogasuneko Langile Euskaldunon Taldea

langileeuskaldunok@gipuzkoa.net
<http://errotanberbetan.nireblog.com>

AURKEZPENA

Nortzuk gara? Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko langile euskaldunon taldea.

Ba al dago Ogasunean euskaldunok talde gisa aritzeko premiarik? Askotan, euskaldunak kezkatzen dituen gaia da euskara. Pertsona bakoitzarentzat, euskara familian bereganatutako herentzia da, eskolan jasotako zerbait, eskaltegian ikasitako hizkuntza edo lanpostua lortzeko landutakoa. Pertsona bakoitzak egiten duen bidean, elementu horietako batzuk egon daitezke. Horregatik, euskarari ikuspegi eta abiapuntu desberdinetatik begiratu diezaiokegu, norberaren esperientziari lotuta dagoelako.

Lankideekin gai horretaz hitz egiten dugunean, konturatzen gara oso errealitate desberdinak daudela: euskaraz aritzen direnak eta ez direnak, hizkuntz eskakizuneko ikastaroa egiten ari direnak, lana euskaraz egiten dutenak eta horretan hasteko prest daudenak, euskaltegian ari direnak... Baina, denok zerbait dugu komunean: euskara aurrera ateratzeko borondatea eta kezka, eta euskara pertsona eta langile gisa aberasten gaituen zerbait delako uste osoa. Horregatik, talde gisa aritzea garrantzitsua da departamentuko euskaldunontzat.

Zer eginkizun betetzera doa? Errotaburun nahiz departamentuko gainerako bulegoetan, lan harremanak edota lana euskaraz egiteko aukera posible egitea.

Zer espero dugu gure taldetik? Gure jardunaren bidez, erantzun nahi diegu departamentuko pertsona euskaldunen hizkuntz beharrei eta nahiei, eta haientzat erreferentziazko topagunea izan.

Zeri ematen diogu garrantzia?

- Pertsonari. Pertsonaren hizkuntz garapena bere garapen pertsonal eta profesionalaren zatia da.
- Hitzun taldeari. Hortxe gauzatzen dira pertsonaren harremanak.
- Hitzun eta hizkuntzen arteko aukera berdintasuna. Lan harremanak euskaraz gauzatzeko aukera izatea garrantzitsua da elebidunentzat.
- Zerbitzu publikoaren kalitateari.
- Taldeko kideen partaidetza eta ekarpenari.
- Departamentuko pertsona guztientzako onurari.

Zeintzuk gara taldeko partaide? Departamentuko arlo guztietako langile eta arduradunek eta zuzendaritzako kideek osatuta dago gure taldea. Gainera, esparru guztietako profesionalak gaude: administrari laguntzaileak eta administrariak nahiz erdi eta goi mailako teknikariak. Errotaburun nahiz departamentuko gainerako bulegoetan aritzen dira lanean taldeko

partaideak. Une honetan, 170 kide gara, hain zuzen sinadura pertsonalaren bidez taldearen oinarriko asmoekin bat egin dugunok. Baina, gainerako lankide euskaldunak taldeko partaide izatera gonbidatuko ditugu.

GURE JARDUNAREN ARDATZAK

Gure taldearen jarduna bi kolektibori zuzenduko diegu, batez ere:

- **Euskaraz dakitenei:** haien arteko harremana euskaraz izatea bultzatuko da, lan inguru egokia erraztuz edota hizkuntz sentsibiltatea landuz.
- Euskaraz hitz egin ez arren, **ulertzen dutenei:** solaskide euskaldunaren hizkuntza ez baldintzatzeko nahikoa ezagutza izan dezaten, haien ulermena lantzea izango da gure lehentasuna.

Eta gure jarduna bi ardatzetan gauzatzeko asmoa dugu:

❖ Euskaraz jardun ahal izateko lan inguru egokia erraztea:

- Pertsonari dagokion mailan: formazio ikastaroen hizkuntz aukera, ordenagailuko pantailaren hizkuntza...
- Lankideekiko harremanetan: euskaldunekin euskaraz, e-posta eta telefonoa, errotulazio informala, abisuak...
- Herritarrekiko harremanetan: euskaldunekin euskaraz, telefonoa...
- Departamentuari edo Diputazioari dagokion mailan: langile euskaldunak telefono zerrendan identifikatzea, nominaren hizkuntza, formazio plana, barne komunikazioak...
- Euskara ikasten ari direnekin: euskaraz egiteko lankide taldeak...

❖ Langileek euskara bere egin ahal izateko sentsibiltatea lantzea:

- Hizkuntzari buruzko hainbat gogoeta edo iritzi zabalduko dugu.
- Euskara ikasten ari direnen ahalegina aitortu eta zorionduko dugu.
- Euskararen aldeko ekimenei lagunduko diegu (Seaska, Korrika...).
- Inoiz bazkariren bat antolatuko dugu.

Zinez uste dugu gure jardunak Foru Ogasuneko langileen arteko hizkuntz elkarbizitza erraztuko duela, langileen arteko lan giroa onduko duela, langile-enpresa kohesioa hobetuko duela, euskaldunon motibazioa piztuko duela, langileen ilusioa biziberrituko duela eta herritarrengana hurbilduko gaituela.

Eta amaitzeko, gustura jasoko dugu gure asmoei buruzko zure iritzia. Horretarako, langileeuskaldunok@gipuzkoa.net helbidera idatzi dezakezu. Asko estimatuko dizugu.